

# Proust galdetegia



ARITZ GALARRAGA

**1.** Zein da zure bertuterik maiteena: Bertuterik eza, edo, nahiago bada, ezintasunez betetako bertute txikien bilduma  
**2.** Gizonezko batengan atsegin duzun dohaina: Adeitasuna, neurrian beti ere  
**3.** Emakumezko batengan atsegin duzun dohaina: Adeitasuna, neurrian beti ere (zergatik nahiago izan beharko nuke beste gaitasun bat emakumeengan?)  
**4.** Zeregin gustukoena: Lo egitea  
**5.** Zoriontasunaz daukazun ideia: Liburu mendi bat nire zain edukitzea  
**6.** Zorigaitzaz daukazun ideia: Liburu mendi bat nire zain edukitzea, eta zein liburu irakurri ezin erabakitzea  
**7.** Kolore, eta lore, maiteena: Zuri, gorri eta berdea izan ezik, beste edozein; zalantzarik gabe geranioa  
**8.** Zu ez bazina, nor izan nahiko zenuke: Galdera agian litzateke nork izan nahiko lukeen ni, ez duzu uste?  
**9.** Non nahiko zenuke bizi: Orain, Joseph Brodsky irakurri eta gero, Venezian. Edo, tira, zuzenean Atlantidan  
**10.** Prosazko autore gustukoena: Poetaren bat, adibidez William McGonagall  
**11.** Poesiazko autore gustukoena: Narratzailearen bat, adibidez Amanda McKittrick Ros  
**12.** Pintore eta musikagile gustukoena: Pintoreak, gure seme-alabak, bizpahiru urterekin; musikagileak, edo hobeki, zaratagileak, gure seme-alabak, 11-13 urterekin  
**13.** Bizitza errealeko heroi maskulinoa: gure auzoko postaria; eguna joan, eguna etorri, etxeraino ekartzen dizkidalako liburuak  
**14.** Bizitza errealeko heroi femeninoa: gure auzoko okina; eguna joan, eguna etorri, aurpegian asmatzen baitit uneoro zehazki zer nahi dudana  
**15.** Fikziozko heroi maskulinoa: Santi Leoneren edozein pertsonaia maskulino  
**16.** Fikziozko heroi femeninoa: Uxue Apaolazaren edozein pertsonaia femenino  
**17.** Gehien gogaitzen zaituena: Galdetegi zentzugabeak erantzutea  
**18.** Zerekin zara barkabera: Barkabera direnen akatsekin, segur aski  
**19.** Esapiderik maiteena: Ze telebista katetan emango dute hau? ●



ADUR

## Espioitza

Pegasus programaren bidez, Arnaldo Otegiaren eta Jon Iñarriguren mugikorren deiak kontrolatu dituzte, baita Kataluniako 65 politikari eta aktibista independentistenen ere. CNik 6 milioi eurotan erosi zuen Pegasus. Espainiako Gobernuak izan duen papera argitzeko eskatu du hainbat alderdik.

## Klima larrialdia

Bere buruari su emanda hil da klimaren aldeko aktibista bat AEBetan. Wynn Bruce 50 urteko gizonak bere buruari su eman zion Washingtonen, Gorte Gorenen parean, eta erreduren ondorioz hil zen ospitalean. Lurraren Eguna aukeratu zuen ekintza burutzeko.

## Eskubideak

Gurasobakarra den ama batek Bilboko epaitegi batean lortu du amatasun baimena ez izatea soilik amari dagokiona, legeak dioen moduan, baizik eta bikoteei jaioberriaren zaintzarako ematen zaien epearen adinakoa izatea. Gurasobakarreko haurrak diskriminatzen ditu legeak, dio ebazpenak.